Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3225

AGINDUA, 2010eko apirilaren 27koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzak «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» fundazioa iraungitzeko eta likidatzeko erabakia berresteko eta erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzak «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» fundazioa iraungitzeko eta likidatzeko erabakia berretsi dezan eta erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskriba dadin eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2010eko otsailaren 11n eman zitzaion sarrera Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistroan erabakiak publiko egiteko eskritura publikoa, María Izaskun Sarasola Aguirregomezcortak 2010eko urtarrilaren 23an Donostiako notario José María Ajubita Garavillaren aurrean emandakoari (53 protokolo-zenbakia). Eskritura publikoari honako hauek erantsi zaizkio:

1.– Fundazioaren likidatzaile gisa María Izaskun Sarasola Aguirregomezcortak 2006ko martxoaren 22an egindako ziurtagiria. Ziurtagiri horretan, besteak beste, 2005eko apirilaren 27ko bileran hartutako erabakiak osatuz, Fundazioaren patronatuak aho batez 2006ko martxoaren 22an hartutako erabaki hauek laburbiltzen dira:

a) «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» fundazioa deuseztatzea.

b) «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» fundazioaren balantzea eta fundazio horren gastu eta sarreren balantzea, 2004ko abenduaren 31koa, onartzea.

c) Patronatuko Batzordeko kide guztiak euren karguetatik kentzea eta María Izaskun Sarasola Aguirregomezcorta likidatzaile bakar izendatzea. Pertsona horrek, bileran izanik, onartu egin zuen izendapena eta adierazi kargu hori hartzeko inolako bateraezintasun-kausatan ez dagoela sartuta.

d) Fundazioaren likidazio-programa onartzea.

2.– Notariotzako gestioak egiteagatik kudeatzaile administratibo eta aholkulari den Ana Jiménez de la

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

3225

ORDEN de 27 de abril de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, de ratificación por parte del Protectorado de Fundaciones del País Vasco del acuerdo de extinción y liquidación de la fundación denominada «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» e inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de dicho acuerdo.

Visto y examinado el expediente por el que se solicita la ratificación del Protectorado de Fundaciones del País Vasco del acuerdo de extinción y liquidación de «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta», e inscripción el Registro de Fundaciones del País Vasco del citado acuerdo, sobre la base de los siguientes,

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El 11 de febrero de 2010 ha tenido entrada en el Registro del Departamento Justicia y Administración Pública escritura pública de elevación a público de acuerdos, otorgada el 23 de enero de 2010 por doña María Izaskun Sarasola Aguirregomezcorta ante el Notario de Donostia-San Sebastián, don José María Ajubita Garavilla, número 53 de su protocolo. La escritura pública incorpora la siguiente documentación:

1.– Certificación expedida el 22 de marzo de 2006, por doña María Izaskun Sarasola Aguirregomezcorta, actuando como liquidadora de la fundación. A través de dicha certificación extractan los acuerdos adoptados por unanimidad en fecha 22 de marzo de 2006 por el Patronato de la Fundación, complementando los acuerdos adoptados en reunión celebrada el día 27 de abril de 2005:

a) Disolver la Fundación Sarasola Aguirregomezcorta.

b) Aprobación del Balance de la Fundación Sarasola Aguirregomezcorta y Balance de Gastos e Ingresos a fecha 31 de diciembre de 2004.

c) Cese de la totalidad de los miembros de la Junta de Patronato y nombrar a doña María Izaskun Sarasola Aguirregomezcorta como liquidadora única, la cual presente en la reunión, acepta el nombramiento y manifiesta no hallarse incursa en causa alguna de incompatibilidad para ejercer el cargo.

d) Aprobación del programa de liquidación.

2.– Factura emitida por doña Ana Jiménez de la Iglesia Vergarajauregui, Gestor Administrativo Asesor

Iglesia Vergarajaureguik aurkeztutako faktura, mila eta hirurogeita hamabi euro eta laurogeita hamahiru zentimokoa (1.072,93).

3.– Asociación Gautena elkartearen ziurtagiria non egiaztatzen den 2006ko abenduaren 26an, hemeretzi mila eta hirurehun euro (19.300 euro) jaso dituela «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» fundazioarengandik, opari gisa, erakunde horren jarduerak eta helburuak betetzeko ekintzak ordaintzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioa iraungitzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeko 36.3 eta 40. artikuluetan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4. artikuluan; eta, Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 9.1.e) artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4.1 artikuluan.

Bigarrena.– Legitimatuta dagoen pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 33. eta 34. artikuluetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 35. artikuluan eta fundazioaren estatutuetan -ondarea iraungitze eta likidatzeari dagokionez- aurreikusitako baldintzak bete dira.

Hirugarrena.– Fundazioen Babeslaritzak onartu eta Fundazioen Erregistroan inskribatu beharreko agirietan ikusten denez, «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» fundazioaren Patronatuak 2006ko martxoaren 22an fundazioa iraungitzeko hartutako erabakia baliozkoa da, estatutuen eta Euskal Autonomia Erkidegoan fundazioei buruz indarrean dauden arauetan ezarritakoaren arabera. Era berean, fundazioa iraungitzeko kausa, hau da, eratu zenerako helburua bete izana, eta bere jarduera amaitu izana, betiere Kode Zibilaren 39. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen 12/1994 Legearen 33.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Fundazioa iraungitzeko aipatu erabakiaren ondorioz, «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» fundazioaren Patronatuko bazkideek honako hau erabaki dute: aipatu ondasun guztiak Fundazioko estatutuetan zehazten den pertsona edo erakundeari ematea,

por las gestiones ante la Notaria, que asciende al importe de mil setenta y dos euros con noventa y tres céntimos (1.072,93).

3.– Documento justificativo de «Asociación Gautena» por el que se certifica que la citada asociación en fecha 26 de diciembre de 2006 ha recibido de la Fundación Sarasola Aguirregomezcorta, cantidad de diecinueve mil trescientos (19.300) euros en concepto de donativo, destinado a sufragar las actividades y fines de esta Entidad.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden la resolución del expediente de extinción fundacional sobre la base de los artículos 36.3 y 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, y 4 del Decreto 100/2007, de 19 de junio, que aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco; el artículo 9.1.e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos y el artículo 4.1 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en los artículos 33 y 34 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, 35 del Decreto 100/2007, de 19 de junio, que aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco y los Estatutos fundacionales en lo que afecta a la extinción y liquidación patrimonial.

Tercero.– De la documentación sometida a aprobación del Protectorado de Fundaciones e inscripción en el Registro de Fundaciones se desprende la validez, conforme a los estatutos y la vigente normativa de fundaciones del País Vasco, del Acuerdo de extinción fundacional adoptado en fecha 22 de marzo de 2006 por el Patronato de la «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta», así como la concurrencia efectiva de la causa motivadora de la misma, como es haber realizado el fin para el cual se constituyó y por haber finalizado su actividad, de acuerdo con los artículos 39 del Código Civil y 33.b) de la Ley 12/1994, de Fundaciones del País Vasco.

Como consecuencia del citado Acuerdo de extinción fundacional, los miembros del Patronato de la Fundación Sarasola Aguirregomezcorta acuerdan que todos los bienes mencionados serán destinados a la persona o entidad que determinen los estatutos de

kasu honetan Asociación Gautenari, hain justu ere fundazio horrek dituen helburuen antzekoetarako erabil daitezen.

Ondarearen destinoa, berez, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 12/1994 Legearen 35. artikuluari atxikitzen zaiola jo behar da.

Aipatu manuak eta oro har aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Donostia-San Sebastiángo «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» fundazioa iraungitzeko eta fundazioa likidatzearen ondoriozko likidoa destinatzeko Fundazioko patronatuak 2006ko martxoaren 22ko bileran hartutako erabakia berrestea. Erabaki hori 2010eko urtarrilaren 26an egin zen publiko, Donostiako notario José María Ajubita Garavillak emandako eskritura baimenduaren bidez (53 protokolo-zenbakia).

Bigarrena.– Fundazioa iraungitzeko erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

Hirugarrena.– «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» fundazioaren likidazio-prozesua amaitutzat jotzea eta beraren erregistro-orria ezeztatzeko agintzea.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 27a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

la Fundación, que en este caso será a la Asociación Gautena con el objeto de que se destinen a análogos fines a los de esta Fundación.

Dicho destino patrimonial debe considerarse en sí mismo acorde al artículo 35.2 de la Ley 12/1994, de Fundaciones del País Vasco.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general y pertinente aplicación, La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Ratificar el acuerdo de extinción de «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta», de Donostia-San Sebastián y de destino del líquido resultante de la liquidación fundacional adoptado por el Patronato de la misma en su reunión de 22 de marzo de 2006, y que ha sido elevado a público en fecha 26 de enero de 2010 mediante escritura notarial autorizada por el Notario de Donostia-San Sebastián, don José María Ajubita Garavilla, número 53 de su protocolo.

Segundo.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco del Acuerdo de extinción mencionado anteriormente.

Tercero.– Dar por finalizado el proceso de liquidación de la «Fundación Sarasola Aguirregomezcorta» y ordenar la cancelación de su hoja registral.

Cuarto.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá imponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de abril de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.